



A25 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Beste urte batez, azaroaren 25ean indarkeria matxistaren kontrako aldarria egin nahi dugu. Ozen esan, indarkeria matxistaren forma ororen kontra gaudela, eta horiek betetzen duten funtzio soziala, hau da, emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea gaitzesten dugula.

Beraz, indarkeria matxista indarkeria sistemikoa dela adierazten dugu. Indarkeria horren adierazpideak fisikoak, psikologikoak, sexualak eta ekonomikoak dira, eta emakumeen eskubideak eta autonomia onartzen ez dituzten sineste patriarkalak dituzten eta emakumeen kontrolpean mantendu nahi dituzten gizonak gauzatzen dute. Horrela, hertsatuz eta bortizkeriaz, emakumeen oinarrizko eskubideak bere osotasunean erabiltzea eragozten dutelarik.

Bide horretan, aurtengo martxoaren 7an Urola Garaiko Mankomunitateko batzar orokorrean onartu genuen eskualdeko III Berdintasun Planaren “Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak” ardatzak dioten moduan, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria adierazpen larrienetakoa da indarkeria matxista. Ez da indarkeria erabiltzen duten gizon batzuen arazo indibiduala, baizik eta arazo estruktural eta sistemikoa, bizitzako arlo guztiei eragiten diena, eta berau sostengatzen duen matxismoa desagerraraztea eskatzen duena. Horretarako konponbidea berdintasuna orokortzetik etorriko da, gure gizartearen balio eta helburu gisa.

Urola Garaiko Udal Elkarteak eta berau osatzen dugun lau Udalek berresten dugu, planaren baitan jasotzen den moduan, indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren alde lan egiten jarraituko dugula eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jartzen jarraitzea izango da gure lehentasuna. Era horretan, planak jasotzen dituen hurrengo helburuak betetzeko konpromisoa berresten dugu:

- Lehenik, prebentzio politikak eta programak inplementatzen jarraitzea eta indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alabei arreta integrala ematea. Prebentzioari dagokionez, Urola Garaian barne-mailan indarkeria kasuen aurrean jarduteko protokoloa azken urteetan aktibo egon ez bada ere, berau eguneratu eta aktibatzeke prozesua burututa, berriro martxan da. Hori horrela izanik, datorren urteetako erronka, inplikaturako agente guztien arteko sinergiak eta elkarlana fintzea izango da.
- Bigarrenik, erreparazioa eta oneratzea bermatzea, horretarako emakumeak subjektu aktibo izango dira eta bide emango zaie gogoeta eta praktika eraldatzaileak diseinatzeko. Azkenik, indarkeria jasan duten emakumeak oneratu eta ahalduzko prozesuak sustatuko ditugularik.

Zehazki, erreparazio printzipioak esan nahi du emakume bizirauleei arreta ematen dieten zerbitzu publikoek ekintzak bideratzea maila guztietan jasandako kalteak arintzeko; halaber, indarkeriak emakumeengan utzitako ondorioei arreta jarriko zaiela bermatzea eta neurriak hartzea emakumeen eskubideen urratzea ekarri dituzten egoerak berriz ez errepikatzen.

Tokiko erakunde gisa, gure politiketan erreparazio-printzipioak bermatzeko bete beharreko helburuak hurrengoak dira:

- Biktima bizirauleak berreskuratze eta erreparazio prozesuan laguntzea, beraien gaitasun eta aukeratzeko ahalmena indartzea, biktima-bizirauleentzako ahalduntze pertsonalerako neurriak garatuz
- Gertakizunen errepikapena ekiditeko prebentzio politikak sortuz eta martxan jarritz

Eta horiek betetzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala nola, horiek burutzeko tresna diren eskualde mailako Berdintasun Arloa eta Emakumeen Etxea bultzatzen eta garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Baita, beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan arituko gara eta aldi berean, gizarte-taldeekin eta talde feministekin betekizun honetan.

Bukatzeko, Legazpiko biztanleei dei egiten diegu, Azaroaren 25aren bueltan antolatu diren ekintza eta aldarrikapenetan parte hartzera.

Legazpin, 2022eko azaroaren 23an

